

5 URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

HAUR HEZKUNTZA BIGARREN ZIKLOKO HIRUGARREN MAILARAKO 5 URTE

HAUR HEZKUNTZAKO KURRIKULUMA
12/2009 dekretuan, Urtarrilaren 20koa eta 121/2010 dekretuan
Apirilaren 20koa oinarritua

EPE 2015

AURKIBIDEA

• SARRERA	1
• IKASTETXEKO TESTUINGURUARI LOTUTAKO EZAUGARRIAK:	2
- INGURUNEA.	2
- ESKOLA.	2
- TALDEA.	2
• BOST URTEKO UMEEN EZAUGARRIAK.	2
• GAITASUNAK.	3
• HAUR HEZKUNTZAKO HELBURU OROKORRAK.	4
• ESPERIENTZIA EREMUA.	4
- EDUKIAK.	5
• METODOLOGIA.	6
- OINARRI METODOLOGIKOAK.	6
- ANIZTASUNAREN TRATAERA.	7
- TALDEEN ANTOLAKETA.	9
- ESPAZIOEN ANTOLAKETA.	10
- DENBORAREN ANTOLAKETA.	10
- BALIABIDEAK.	10
- JARDUERA MOTAK.	11
▪ EZAUGARRIAK.	11
▪ SAILKAPENA.	12
▪ IKT.	12
▪ PSIKOMOTRIZITATEA.	13
• EBALUAZIOA.	13

• FAMILIA ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANA.	15
• UNITATE DIDAKTIKOAK. (informazio orokorra)	16
• ONDORIOA.	16
• ERLAZIO TAULA : LANDUKO DIREN	17 - 20
- ESPERIENTZI EREMUETAKO EDUKIAK.	
- ESPERIENTZIA EREMUETAKO HELBURUAK ((EH).	
- OINARRIZKO GAITASUNAK (OG).	
- HAUR HEZKUNTZAKO HELBURU OROKORRAK (HO	
• 15 UNITATE DIDAKTIKOEN GARAPENA.	21 – 50
- 1.U.D : BERRIRO ESKOLARA .ARAUTEGIA EGINGO DUGU.	21- 22
- 2.UD : ORDENAGAILUA	23 -24
- 3.U.D : FAMILIA	25 -26
- 4. U.D : UDAZKENA	27 -28
- 5.U.D : GABONAK	29 -30
- 6. U.D : NEGUA	31 -32
-7. U.D : GORPUTZA	33 -34
- 8. U.D : JANARIAK	35 -36
-9. U.D : INAUTERIAK	37 -38
-10.U.D : LURRETIK,AIRETIK ETA ITSASOTIK	
-11.U.D : KALEA ETA AUZOA	
-12.U.D : UDABERRIA	
-13.U.D : BEHIN BATEAN BASERRIAN	
-14.U.D : INGURUNEA ZAINTZEN	
15.U.D : OPORRAK ETA GERO LEHEN MAILARA GOAZ	

ERABILITAKO KODEAREN ARGIBIDEA:

HAUR HEZKUNTZA: **HH**

OINARRIZKO GAITASUNAK : **OG**

HAUR HEZKUNTZAKO HELBURU OROKORRAK: **HO**

ESPERIENTZIA EREMUETAKO HELBURUAK: **EH**

UNITATE DIDAKTIKOA : **UD**

INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK: **IKT**

NORBERAREN EZAGUERA ETA AUTONOMIA PERTSONALA

INGURUNEAREN EZAGUERA

HIZKUNTZAK: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA

(ERLAZIOA DUEN ESPERIENTZI EREMUKO BLOKEAREN ZENBAKIA) : ()

TALDE HANDIA: **TH**

TALDE TXIKIA: **TX**

BINAKA: **BI**

BANAKA: **BA**

SARRERA

Programazioa didaktikoa, gela konkretu batentzat eginiko, irakaste- ikaste prozesuaren planifikazio sistematikoa da. Kasu honetan nire eskolako Haur Hezkuntzako 2.zikloko 3.mailarako (5urteko gelarako) egina. Bertan konkretatuko ditut helburuak, edukiak, urteko unitate didaktikoak, metodologia, ebaluazioa,baliabideak,... Ikasleek oinarrizko gaitasunak lortzen joatea izanik helburu nagusia.

Marko legalean eta ikastetxeko dokumentuetan oinarrituta dago eta bere xedea umeen garapen integrala lortzea da: garapen afektiboa, fisiko, kognitibo eta soziala.Hau guztia, familiekin lankidetzan, eta profesional desberdinen arteko koordinazioa bultzatuz.

Bestalde, desberdintasunak prebenitzeko eta orekatzeko egina dago, egoerarik ahulenean daudenei arreta emanez. Programazio didaktikoa malgua izango da ume guztiei egokitzeko. Ikasleen interesak eta aurre esperientziak izan ditut kontutan proposamen desberdinak umeentzat esanguratsuak izateko.

Programazioaren barruan beharrezkoa den ikasleen ikaste prozesuaren eta irakaste prozesuaren ebaluaketa ere azalduko da.

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA GARATZEKO KONTUTAN IZANDAKO DOKUMENTUAK:

- Maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzako lege organikoa, L.O.E. España osorako
- Urriaren 16ko 175/2007 Dekretua. Gure erkidegoan euskal curriculuma ezartzen du. Honetan argitaratzen dira gaitasun orokorrak eta oinarrizko gaitasunak.
- Urtarrilaren 20ko 12/2009 Dekretu. Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta gure erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituen eta Apirilaren 20ko 121/2010 dekretua aurrekoan aldaketak zehazten duena.
- Ikastetxearen hezkuntza proiektua.
- Ikastetxerako curriculum proiektua.
- Urtxintxa proiektua., www.berritzeguna.net, e.a.

IKASTETXEKO TESTUINGURUARI LOTUTAKO EZAUGARRIAK

- **INGURUNEA:** Programazioa egiterakoan Balmasedan dagoen C.E.I.P. Mendia eskolako 5 urteko talde bat kontuan izan dut. Eskola publikoa da eta herrian bertan kokatuta dago. Herria inguru semi-industrial batean kokatuta dago nekazaritza konnotazioekin. Bertako gizarte- eta kultura- erdi mailakoa dela esan genezake. Gehienbat erdara hitz egiten da baina euskara bere protagonismoa hartzen ari da guztioi esker.

- **ESKOLA :** Ikasturte honetan ? ikasle daude. Gela batzuetan etorkinak ere badaude. Eskolak bi eraikuntza ditu hurbil daudenak. Bertan beharrezkoak den guztia dago:jantokia, psikogelak, patioak, frontoia, musika gela , logopeda gela, laguntza gela, liburutegia,... Eskolak D eredu eskaintzen du. Familia gehienen ama hizkuntza gaztelera da. Klaustroak 58 osotzen dugu. Tutoreak, pt-ak,logopeda, aholkularia, espezifikoak,.. barne. Eskolak proiektu hauetan parte hartzen du: Agenda 21, Elkarbizitzarako proiektua, Hizkuntza proiektua eta Eskola 2.0 . Unitatea didaktikoetan lantzen dira kurtsoan zehar. Eskola kanpoko ekintzak antolatzen dira eta familiak AMPAn antolatuta daude.

- **TALDEA**

Guztira 21 umez osotuta dago taldea: 11 mutil eta 10 neska.

Taldea aukera handikoa da, lan ohiturak nahiko finkaturik daude eta euren arteko erlazioak estuak dira, oso partehartzaileak dira eta ikasteko interes handikoak.

Beharrez bereziak duen ume bat dago , hori dela eta tutoreaz gain, hezitzailea edo Pt-a egoten dira gelan. Andoni deituko dugu. (Ikus aniztasunaren trataera)

- **BOST URTEKO UMEEN EZAUGARRIAK**

Kontutan izan behar ditugu programazioa egokitzeko.

- Adin honetan, umea, autonomia lortzen jarraitzen du.
- Arreta eta kontzentrazioa hobetuz doa apurka.
- Operazio konkretuen adinean sartzen ari da, eta esperimintatzearen, ukitzearen eta manipulatzearen beharra dauka.

- Hizkuntza aberastuz doa, eta esaldi konplexuak egiteko gai da, baita bere esperientziak eta sentimenduak hizkuntzaren bidez adierazteko ere.
- Garapen kognitiboa ere gero eta zabalagoa dauka. Gai da istorioak denborari zein logikari jarraituz ordenatzeko; zentzuzko galderak egiteko; zenbait gertakari nola jasotzen diren eta nolako ondorioa duten ulertzeko,...
- Garapen psikomotorea ere gero eta hobea da. Bere gorputz eskemaren eraikitze prozesua amaituta edo amaitzeaz dago. Koordinazio eta oreka ona du.
- Gizarteratze prozesuari dagokionez, oso inportanteak dira bestekiko harremanak. Bere ingurunea zabalduz doa eta giza arauak ulertuz doa.

Nire taldeko umeeek ezaugarri hauek dituzte Andoni ezik. (Ikusi aniztasunaren trataera)

GAITASUNAK

Gaitasuna: Ikasleak, testuingurura egokituta bereganatzen duen jakintzen, trebetasunen, jarreraren eta balioen konbinazio integratua da.

Haur Hezkuntza **Oinarrizko gaitasunak** lortzera bideratuta egon behar da. Gaitasun orokorretatik ondorioztatzen dira eta ikasleek derrigorrezko hezkuntzan lortu behar dituztenak dira.

A- Autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

B- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.

C- Gizarte eta kulturarako gaitasuna.

D- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

E- Ikasten ikasteko gaitasuna.

F- Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna.

G- Matematikarako gaitasuna.

H- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.

Haur hezkuntzako HELBURU OROKORRAK (HO)

Haur Hezkuntzako helburu orokorrak haurren gaitasunak garatzen lagunduko dute.

Programazio hau 5 urteko gelarako egin dagoenez mailako helburuak eta helburu orokorrak berdinak dira.

- a) Bere gorputza ezagutzeko, gorputzak ematen dituen aukerak zein diren eta desberdintasunak errespetatzen ikas dezan.
- b) Bere familia-inguruari, natura- eta gizarte-inguruari behatzeko eta inguru horiek aztertzeko, eta horiek ezagutzeko interesa izateko, inguruko gizarte- eta kultura-jardueretan modu aktiboan eta mailaz maila parte hartu ahal izan dezan.
- c) Ohiko jardueretan pixkanaka autonomia handiagoa hartzeko, bere buruarekiko konfiantza eta ekimena gara ditzan.
- d) Bere gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzeko, bere buruaren irudi positiboa eta benetakoa eratzeko.
- e) Ingurukoekin harremana izateko eta bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako oinarritzko arauak barneratzeko, gatazkak modu baketsuan ebatztean trebatu dadin.
- f) Zenbait hizkuntzatan eta adierazpidetan komunikatzeko gaitasunak garatzeko.
- g) Trebetasun logiko-matematikoak eta irakurketa-idazketa ikasten hasteko, eta mugimendua, keinuak eta erritmoa lantzen hasteko, inguruan duen mundua uler eta interpreta dezan.

ESPERIENTZIA-EREMUAK

H. Hezkuntzako hezkuntza-edukiak hiru esperientzia-eremu hauetan antolatzen dira:

1) Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala. : Haurrek, bere buruari buruz barneratzen duten ezagutza guztia biltzen du eremu honek: nortasun pertsonalaren eraikuntza, limiteak eta aukerak, sentimenduen garapena, jokia, autonomia ,ohiturak eta

balioak,... (12/2009 DEKRETUA, Urtarrilaren 20koan: Eremuko Helburu orokorrak.13-14 orriak)

2) Inguruaren ezagutza. Eremu hau ingurune naturala, fisikoa eta soziala osatzen duten testuinguru desberdinen ezaguera eraikitzeari dagokio: errealitatearen adierazpen zehatza egitea, ingurunearen parte garen sentimendua garatzea, eta ingurunea osotzen duten elementuak errespetatzea, interesa izatea eta balioestea.

(12/2009 DEKRETUA, Urtarrilaren 20koan: Eremuko Helburu orokorrak. 21-22 orriak)

3) Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena: hitzezkoa, artistikoa, gorputz hizkuntza, ikus entzumenezkoa eta informazio eta komunikazioaren teknologiarenak . (12/2009 DEKRETUA, Urtarrilaren 20koa: Helburu orokorrak 29 orria)

Etapako helburu orokorrak eta eremu bakoitzeko helburuak konkretatu eta egokitu ditut unitate didaktiko bakoitzean.

• **EDUKIAK**

Haurren garapenak eskatzen duen bezala, hiru esperientzia eremuak landuko ditut, hezkuntza-jarduera globalizatzaileak erabiliz.

• **1. Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala**

- 1. blokea: Gorputza eta norberaren irudia. (1)
- 2. blokea: Jolasa eta mugimendua.(2)
- 3. blokea: Jarduera eta egunerokotasuna.(3)
- 4. blokea: Norberaren zaintza eta osasuna.(4)

• **2. Inguruaren ezagutza**

- 1. blokea: Ingurune fisikoa: elementuak, harremanak eta neurria.
- 2. blokea: Natura ezagutzen hastea.
- 3. blokea: Kultura eta bizitza gizartean.

• **3. Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena**

- 1. blokea: Hitzezko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea.

- 2. blokea: Ikus-entzunezko hizkuntza, Informazioaren eta komunikazioaren Teknologia
- 3. blokea: Arte-hizkuntza.
- 4. blokea: Gorputz-hizkuntza.

ERLAZIO TAULA

H. H. bigarren zikloko edukien artean aukeraketa bat egin dut maila eta taldearen arabera eta hauek Helburu Orokorrekin (HO), Eremuko Helburuekin (EH), eta lantzen diren gaitasunekin (O.G) erlazionatu ditut ondoko taulan . (Orriak 18tik 21 ra)

Agertzen ez diren edukiak aurreko mailetan landuak daudelako da baina egunerokotasunean lantzen jarraitzen dira eta aukeratutako oinarri dira.

METODOLOGIA

H.Hko curriculumaz azpimarratzen duen **OINARRI METODOLOGIKOan** sustatu dut nire programazioa . Hau da, oinarrizko konpetentziak garatuko dituen metodologia. Kontutan izango du:

- **Aniztasunaren trataera:** ume bakoitza bakarra da. Interes, gaitasun eta beharrian desberdinetara egokitzen da. Ikuspegi honetatik bideratuko ditugu jarduerak eta malgutasunez antolatuko ditugu denbora, materialak eta espazioa. Metodologia **inklusiba** izango da.
- **Ikusmolde globalizatzailea:** Haurrek, era global batean adierazten, erlazionatzen eta ikasten dute. Haurren garapenaren alderdi guztiak elkarrekin landuko ditugu.
- **Ikaskuntza esanguratsua:** Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak ikasleen eguneroko bizitzako beharrian, interes, gaitasun eta esperientziekin bat eginda joango da eta, era berean, eduki berriek aurretik zeukaten ezagupenen eraldaketa sortu behar dute.
- **Ikaskuntza aktiboa.** behaketa, manipulazio, esperimentazio, aurkikuntza eta ikerkuntza prozedurak bultzatuko ditu. Haurra izango da protagonista ekiten ikasiz: “Esaten badidazu, ahaztuko dut. Irakurtzen badut, gogoratuko dut. Egiten badut ikasiko dut.”

- **Estimulazioa eta Jolasa.** Adin honetan, hurrek, jolasteko premia dute eta jolasaren bitartez ikasten dute eta bere nortasuna eta mundua eratzen dute.

- **Hizkuntzen irakaskuntza.** Etapa hau haurra hizkuntza berriekin harremanetan jartzeko unerik egokiena da, estimulu gutxiagorekin, eboluzio neurologiko hobea eta handiagoa lortzen delako. Irakaskuntza elebidunari emango diogu garrantzia. Euskarari bereziki.

- **Autonomia.** Bai jarduerak eta baita gelaren antolaketa bera, haurren autonomia bultzatzeko pentsatuak daude.

- **Hizkuntza idatziaren irakaskuntza.** Ikuspegi eraikitzailea kontutan izango dut .

Ez dago momentu konkretu bat irakurtzen eta idazten ikasteko. Hurrek pixkanaka egiten dute prozesu hau. Zenbat eta aukera gehiago eman irakurtzeko eta idazteko hobe. Idazketa faseak hauek dira: Idaztea ez da irudikatzea, fase idiografiko, fase silabikoa, fase silabiko alfabetikoa eta alfabetikoa.

Bost urteko gelako umeak fase silabiko –silabiko alfabetikoan egoten dira gehienak.

- **Maitasuna.** Maitasunezko harremanak auto-estima indartzen dute eta, honekin batera, adierazpen librea, ekintza, begirunea eta elkarrenganako estima.

- **Familiekin elkarlana.** Irakasleak, gurasoak eta ikasleen arteko harremanak estuak eta konfiantzazkoak izan behar dira hurrei erantzun egokiak eman ahal izateko. Heziketa-lana familian hasten da beti. Irakasleek familiarekin banatu behar dute erantzukizun hori, eta hurrek familia-esparruan eskuratu dituzten prestakuntza-esperientziak osatu eta zabaldu behar dituzte. Funtsezkoa da familiekin etengabeko komunikazioa izatea, bai eta familiekin eskolan esku hartzeko bideak eta moduak ezartzea ere. (Ikus familiarekin harremanak atala)

ANIZTASUNAREN TRATAERA

Haur hezkuntzan **heldutasun maila desberdineko** umeak topa ditzakegu talde berean Bakoitzak gaitasun batzuk ditu, bere garapen-erritmoa du eta bere ezaugarriak modu pertsonalean eraikitzen ditu, bizitzen dituen esperientzien, bere jatorri sozial, ekonomiko eta kulturalaren eta, nagusiki, prozesu horretan ematen zaion laguntzaren arabera.Honen

ondorioz, eskola inklusiboa izan behar du: ume bakoitzari bere heldutasun mailak eskatzen duen arreta indibiduala eskainiko diogu. Malguak izango dira etapako helburu orokorrak betetzeko neurriak. Esperientziak ugari eta era askotakoen bidez, haur bakoitzaren motibazioei, beharrei, interesei eta estilo kognitiboari egokitutako erantzuna eskainiko dugu.

Hezkuntza premia berezia dituzten ikasleen trataera.

Funtsezkoa da behar horiei garaiz antzematea eta arreta goiztiarra ematea. Ikastetxeetako orientabide sailak, gizarte-zerbitzuetako, hezkuntzako eta osasuneko profesionalekin eta familiarekin koordinazioa egon behar da. Eta hezkuntza- prozesu pertsonalizatu bat diseinatuko da .

Halaber lan berezia egin beharko da irakasleen aldetik haur hauen integrazioa eta onarpena modu egoki baten emateko eta batzutan ere gelaren egokitzapena egin beharko da ume hauei erantzun zuzena eman ahal izateko.

Etorkinak

Egoera honek azterketa indibiduala eskatzen du etorkin bakoitzaren egoera desberdina delako: jatorri eta ohiturak, hizkuntza, hezkuntza prozesu orain arte ikasleei erantzun egoki bat emateko hezkuntza sailak dituen baliabideak erabili behar dira kasu honetan ere. Tutoreak, Orientabide sailak, berritzeguneak, H.I.P.I. Batzutan, curriculumaren egokitzapena egin beharko da ere. Profesional guztien arteko koordinazioa beharrezko izango da eta familiekin kontaktu zuzena izatea komenigarria da.

Nire taldean ANDONI izeneko mutil bat dago. 3 urteko gelan eskolara etorri zen eta momentuz ez dauka diagnostiko bat eginda. Atzerapen orokorra dauka atal gehienetan, nahiz eta bere aurrerakuntza nabaria izan Bere ezaugarriak hiru urteko ume batenak dira: arreta maila oso eskasa dauka, besteekiko harremanak orain hasi da izaten, erlazionatzeko arauak apurka ikasiz doa eta gorputz koordinazioa eta oreka ia adinekoa du. Gazteleraz dena ulertzen du eta euskaraz eguneroko jardueretako esaldiak ere eta azalpenak gero eta

gehiago. Hitz egiterakoan zailtasunez ulertzen diot eta bere ikaskideek ia inoiz. Eskolan eta kanpoan logopedarekin ari da. Bestalde, errutinan ondo moldatzen da baina egunerokotasunean aldaketak daudenean aldaketei egokitzea asko kostatzen zaio. Bera, ikusmenaren eta imitazioaren bidez ikasten du. Bere neurrian eta bere erritmoarekin, arlo guztietan aurrera egiten ari da. Alaia da eta interes handia du ikasteko.

Tutoreaz gain,PT eta hezitzailea daude berarekin gelan.

Gurasoekin etengabeko harremana daukagu aurrerapenak eta zailtasunak baloratzeko . Tutorea, Pta eta hezitzailea hamabostero biltzen gara gure interbentzioa aztertzeko eta emaitzen arabera doitzen joateko. Laguntza zuzena du jarduera guztietan:. Beharrezkoa denean fitxak bere ezagupen mailara jegokitzen ditugu:, Laguntza behar du korruan atentzioa mantentzeko, txokoetan lanak egiteko edo besteekiko erlazioetarako estrategiak ikasteko. Eguneroko bizitzan aldaketak egon ezkerro ,talde osoarekin erabilia, baina bereziki berarentzat eginak , gertatuko denaren sekuentzia imajinetan atera eta lantzen dugu. Asko laguntzen dio. Irteerak adibidez.

Andoni onartua eta integratua dago taldean aurreko urteetan honen inguruan lan handia egin delako.

TALDEEN,ESPAZIOAREN ETA DENBORAREN ANTOLAKETA

- **TALDEAREN ANTOLAKETA:** Beharren arabera izango dira:

Talde handia: (TH) Oso inportantea da sozializazioarekin eta elkarrizketekin erlasionaturiko ohiturak lantzeko; gaiari hasiera emateko, ahozko komunikazioa lantzeko, elkarrizketak egiteko, ipuinak kontatzeko, abestiak eta olerkiak,... Bestalde psikomotrizitatea, ingelera eta musika ere denok batera egiten dute.

Talde txikia: (TX) 4-6-ume osatzen dute. Txokoetan daudenean.

Binaka: (BI) Ordenagailuaren txokoan eta ekintza batzuk egiteko.

Banaka: (BA) Eduki batzuen lanketa indibiduala eta hausnarketa errazteko egokia. Ikasketa berrien barneraketa erraztu du eta irakasleari ikasleen behaketa zuzena eta bakarkako laguntza eskaini al izatea.

- **ESPAZIOAREN ANTOLAKETA:** Gela txokoka antolatuko da. Baina txokoak aldakorrek dira unitate didaktikoa ala eskatzen badu. (malgutasun printzipioa) .Txokoen bitartez ikasleen autonomia pertsonala lantzen da, ume bakoitzaren erritmoa eta indibidualitatea errespetatzen da taldeko interakzioa errazten den bitartean. Gelan egongo diren txokoak: plastika , hizkuntza, etxea, eraikuntza eta ordenagailu txokoak izango dira.

Erabiliko diren eskolako espazioak : komunak, psikogela, patioak, bideo gela eta taldeari dagokion gela.

Honetaz gain lantzen ari garen unitate didaktikoarekin esanguratsuak diren eskolatik kanpoko beste espazio batzuk ere erabiliko ditugu.

Musika musika gelan egingo da eta ingelera gela barruan.

- **DENBORAREN ANTOLAKETA** egiterakoan haur hezkuntzan kontutan izan behar da:
 - errutinak garrantzitsuak dira ikasleek denborazko sekuentzia ikas dezaten laguntzeko. Honek segurtasuna ematen die.
 - Aktibitate handiko, lasaiagokoak eta gogoetarako epeak tartekatu behar dira.
 - Beharizanen arabera malgua izan behar du.
 - Ekintzen antolaketan kontutan izango dira haurren atentzio maila oneko momentuak eta neke momentuak .

Gelako ordutegia

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
9.00 – 9.50	korrua	korrua	korrua	korrua	korrua
9.50-10.40	txokoak	txokoak	txokoak	txokoak	txokoak
10.40-11.10	jolastordua				
11.10-11.55	txokoak	txokoak	txokoak	txokoak	txokoak
11.55-12.40	txokoak	ingelera	txokoak	txokoak	musika
15.00-15.45	ingelera	korrua	psikomotrizitatea	korrua	korrua
15.45-16.30	txokoak	txokoak		txokoak	txokoak

BALIABIDEAK

Baliabide Materialak : Gure eskura egon daitekeen ia edozein gauza izan daiteke erabiltzeko errekurtso bat (arriskua ez duen heinean).

Patioa eta psikogelarako materiala: txirristak, koltxonetak,..

Mota desberdinetako jolasak, material informatikoa: adinera egokitutako programak, Gelako materiala: Margoak,plastilina, rotulkiak, folioak,..Birziklatzeko materialak: kutxak, katalogoak,..

Soporte desberdinetako Ikus entzumeneko materiala: radio kaseta-cd, ordenagailua, ...

Eta beste edozein material erakargarria eta baliogarria dena edukiak lantzeko.

Kontutan izan behar da sexu estereotipo eta konnotazioa daukaten materialei uko egitea, berdintasunaren kontra doazelako eta beraz gure hezkuntza ereduaren kontra.

Giza baliabideak:

- irakaslegoa: gelatik pasatzen direnak eta bereziki tutorea. Ikasleari bere pertsonalitatea eta irudi positiboa eraikitze prozesuan erreferenteak dira.
Musika eta ingelera espezialistek emango dute.
- Eskolako orientazio saila, berritzegunea eta beste zerbitzu batzuk lagungarriak izan daitezkeenak ikaste prozesua garatzen.
- Pertsonal ez dozentea: ikaste prozesuaren parte izan behar dira ikasleen inguru hurbila diren heinean: jantokiko laguntzaileak, bedela,...
- Familiak: Ikasleen garapen integrala lortzeko beharrezko da familien parte hartzea.

JARDUERA MOTAK

Edukiak abiapuntu izanda helburuak lortzen lagundu behar dute eta hauek lortuta, gaitasunak garatzen joan. Jardueren bitartez eduki berriek aurretik zeukaten ezagupenen eraldaketa sortzen dute (Asimilacion-acomodacion-interiorizacion de Piaget)

Programazio honetan egingo ditugunak **ezaugarri** hauek izango dituzte:

- Motibagarriak, kohezitzaileak, baliogarriak eta erabilgarriak.
- Ikaslearengan errealitatetik hurbilak.Proposamen ugaria eta malgua.
- Ezagutzen duten edukiekin erlazionatuta, eraldatuz berriak lortzeko.

- Taldekatze desberdinetakoak.
- Kreatibitatea garatzen laguntzen dutenak.

Sailkapena:

1. **Hasierakoak eta motibatzaileak:** Ikasleen aurre ezagutzak ezagutzeko balio dute eta era berean motibazioa sortzen dute gai berriarekiko. U.Dkoaren hasieran egiten diren jarduerak dira eta U.D guztietan egiten dira: Ipuinaren kontaketa eta elkarrizketa, horma-irudiaren behaketa eta elkarrizketa, gaiaren hiztegiaren aurkezpena, irudi desberdinen behaketa eta elkarrizketa,...
2. **Garapenekoak:** U.D bakoitzeko edukiak lortzeko balio dute. Izan daitezke: mota desberdinetako fitxak: matematika,plastika,,idazkera,... hiztegia ikastea eta liburuxka egitea, artelanak egitea, behaketa ariketak, entzumenezko memoria lantzekoak: abestiak,olerkiak, ... antzezpenak, musikalak, joko sinbolikoa, esperimintatzekoak,psikomotrizitatea,ordenagailuaren erabilpena jolasteko edo informazioa bilatzeko, IKTen erabilpena,...Txoko bakoitzean mota desberdinetako jarduerak egingo dira.
3. **Azkenak:** Ikasitakoa finkatzeko eta al den neurrian aplikatzeko balio dute: Mural bat, albumak,
4. **Gehigarriak:** Edukiak arazo gabe lortu dituztenei ezagupenak gehitzen laguntzen dizkie: gairi lotutako pelikulak ikustea, esposizioak,....

IKT

Gure ikasleak natibo digitalak izanik teknologi hauekin jaiotzetik bizi dira eta gizarteak eskatzen duen gaitasun digitala garatzeko beharrezkoak dira.Ordenagailuak, tf mugikorrak, guztion bizitzako parte inportantea dira gaur egun eta eskolak ere ikaskuntza prozesua bultzatzeko baliabide ukaezina du IKTetan. IKTak ikasketa prozesua pertsonalizatzen laguntzen du.

Programazio honetan 2. Unitate Didaktikoa ordenagailuaren erabilpena lortzera bideratuta dago. Ikasitakoa kurtso osoan zehar eta unitate didaktiko guztietan aplikatzeko asmoz adinerako egokituta dauden programak erabiliz. Honetarako ordenagailuaren txokoa egun guztietan erabiliko dugu binaka.

PSIKOMOTRIZITATEA

Astero ordu eta erdiko saioa bat egingo dugu psikogelan.

Erabiliko dugun metodologia Aucouturier-en "Practica psicomotriz Educativa" izango da.

Saioa hiru momentu desberdinetan banatuko da : sensorio-motorea, joko sinbolikoa eta errepresentazioa. Ikasleak batetik bestera pasatzen joango dira saioaren zehar materialengatik lagunduta.

Hasierako momentuan ikasleak blokeekin egindako dorre baten aurrean jarri eta 3 zenbatuta dorrea botako dute. Kontentzioa landuko dugu horrela.

Sensorio motore unean gorputz eskemaren garapena landuko dugu mugimendu desberdinak ahalbidetzen duten materialak erabilita: blokeak, espalderak, quitamiedosa, koltxonetak, oihaletak, pilotak, ...

2. unean joko sinbolikoa ere garatzen da eta honekin batera beraien arteko harremanak, akordiotara heltzeko beharra, besteen ekoizpeni errespetua, ... aurreko materiala eta panpinak erabiliko dira.

3. momentu baten joko gelditu eta errepresentaziorako unea izango da: marrazki bat egin, plastilina erabili, egurrezko eraikuntzak,

Beraz psikomotrizitatean HHko nortasuna eta autonomia eremua lantzen da gehien baina beste biak ere bai.

EBALUAZIOA

Zertarako: Ebaluaketaren xedea ikaskuntza kalitatea hobetzea eta gure ikasleen ikaste prozesuaren diagnostikoa egitea da. Halaber, gure praktikaren ebaluaketa egin behar da berrantolatzeke eta egokitzen joateko

Zelan: Umeen ebaluazioak adierazi behar du nola eta noiz gertatzen diren garapen eta ikaskuntza prozesuak. Etengabea, jarraitua, eta bakarkakoa izateaz gain, globala ere izan behar du. Tresnarik egokiena, zuzeneko behaketa eta umearen bilakaeraren jarraipenari buruzko informazio-bilketa sistematikoak ditugu.

Zer: Informazio-bilketa hau bai umearen emoziozko egoera, izaera, jarrera eta emaitza eskolarrei buruzkoa izango da. Adin honetan gogoan eduki behar dugu umearen heldutasun maila irregularra dela.

Eskola-talde berberean urte beteko aldea egongo da ume batzuen eta besteen artean. Honek oso irakaskuntza **indibidualizatua** dakar berarekin.

Unitate didaktiko bakoitzean ebaluazio irizpide argiak, behagarriak eta erregistra daitezkeenak behar dira. Irizpide horiek ikaskuntza estrategiak eta prozesuak diseinatzeko eta egokitzeko balioko dute.

Noiz: Ebaluazioak datu aipagarriak biltzea eskatzen du ikaskuntza prozesuaren arlo guztietan: hau da, hasierakoan, prozesu bitartekoan eta amaierakoan.

HASIERAKO EBALUAZIOA:

U.D. bakoitzaren hasieran egingo da, umeak gaiari buruz dituen aurre ezagutzak zeintzuk diren jakiteko, ipuinean eta horma-irudian oinarrituta elkarriketa eginez. Jarduera esanguratsuak planteatzen lagunduko digu.

BITARTEKO EBALUAZIOA:

Hezkuntza prozesu guztian zehar gertatzen da, zeregin berregokitzailea duelarik. Kualitatiboa izan behar du, eta lortutako hobekuntza, gertatzen diren zailtasunak, hauen zergatiak eta berauek gainditu ahal izateko proposamenak definitzeko bidea eman behar du. Zuzeneko behaketa, sistematiko eta indibidualizatuaren bidez egiten da. Datuak jasotzean erregistro orriak erabiltzen dira eta eskola-txostenak burutzen lagunduko digu.

AMAIERAKO EBALUAZIOA:

Ikasleek lortutako ikaskuntza maila baloratzeko da amaierako ebaluazioa.

Guk finkatutako epeen ostean egiten da. Gurasoei informazioa, elkarrizketa eta txostenen bidez luzatzen da. Txostenak burutzeko funtsezkoa dugu irakasleak hasierako ebaluazioan eta bitarteko ebaluazioan zehar bildutako datuak.. Txostenek ikaslearen egoera azalduko dute eta orientabideak ematen lagunduko digute irakslerei.

Zerez: Ikaslearen fitxa pertsonala: Kurtso hasieran zabaltzen da eta bertan ikasle bakoitzari buruzko datu interesgarriak idatziko ditugu.

Kontrol taulak: Unitate bakoitzean behagarriak eta neurgarriak diren ebaluazio irizpideak zehazten dira hauetan helburuak lortzen doazen edo ez ikusteko.

Informeak: gurasoei ikaslearen ikaste prozesuari buruz informatzeko balio dute.

Honez gain irakaste prozesuaren ebaluaketa ere egin behar da. Honen bitartez gure praktika eta ikastetxeko curriculum proiektua egokitzen dira.

Irakaste-ikaste prozesuaren ebaluaketa

- Helburuak ikasleen heldutasun mailarako egokiak izan dira?
- Edukiak helburuetara eta taldeko mailara egokituak daude?
- Proposamenak ikaskuntza esanguratsuak eraikitzeke balio izan du?
- Proposamenak metodologiarekin koherenteak izan dira?
- Proposamenak gaitasunen apurkako lorpena errazten dute?
- Ikaskuntza erritmo desberdinak izan dira kontutan?
- Gelan sortutako giroa ikasleen ongizatea balioztatu du?
- Giza eta material baliabideak egokiak izan dira.?
- Prozesua malgua izan da?
- Espazioa eta denboraren antolaketa egokiak izan dira.?
- Ikastetxeko curriculum proiektua egokia da.?

FAMILIA ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANA

Familia da haurren hezkuntzaren lehenengo arduraduna eta eskola familiei irekita egon behar du. Gurasoek eskolako bizitzan parte hartuko dute kontseilu eskolarrean, gurasoen elkarteetan eta baita eskolako jaialdietan ere: Olentzero, inauteriak,... Eta gelako jardueretarako materiala ekarriz, oharren bidez, iritziak adieraziz,....

Irakasleak eta familiaren arteko konfiantzazko harremana funtsezkoa da ikaslearen ikaste prozesuan biak hartzen dutelako parte elkarlanean.

Irakasleak mota desberdinetako harremanak edukiko ditugu familiekin:

Bakarkako harremanak: egunero sarreran eta irteeran gauza puntualei buruz hitz egiteko eta elkarrizketa pertsonalen bidez. Hauetan, haurren ikasketa prozesuari buruzko informazioa luzatuko zaie familiei. Beharrezkoa denean tartean ere egin daiteke, gurasoek eskatua edo tutoreak eskatua, komentatzeko zerbait badago.

Taldeko harremanak: kurtso hasierako bileran eskolako funtzionamenduari buruz hitz egiteko.

UNITATE DIDAKTIKOAK (orriak 21etik 50ra)

1. HIRUHILABETEA	egun	2. HIRUHIL	egun	3. HIRIHILABETEA	egun
1. Berriro eskolara.	13	6. Negua.	10	11. Kalea.	10
Arautegia		7. Gorputza.	10	12. Udaberria.	10
2. Ordenagailua.	13	8. Janaria.	10	13. Baserrira goaz.	15
3. Familia.	14	9. Inauteriak.	10	14. ingurunea zaintzen.	10
4. Udazkena.	14	10. garraioak.	8	15. Lehen mailara	12
5. Gabonak.	15			goaz.	
Arautegia: 1.UD eta kurtso osoan zehar.					
Ordenagailua: 2.U.D eta kurtso osoan zehar					

Datak Unitate bakoitzean zehaztuta daude. Unitate didaktikoetan erabiltzen diren kodeak ulertzeko aurkibidean dagoen kodeen aurkibidea kontsultatu.

ONDORIOA

Ikastea bizitzaren mendia eskalatzea bezala da. Apurka aurreratzen da.

Hezitzea bizitzako eskalada hori ziurtasunez egiteko beharrezkoa den materiala eta honen erabilpen egokia , teknikak , ezagupen eta aurrera egiteko behar duten animoak eta laguntza ematean datza. Beraz bizitzan gidatzea eta bizitzarako behar dituzten gaitasunak lortzen laguntzea da gure lana. Programazio hau koherentea dela esango nuke eta honetan lagunduko duelakoan nago.

Oharra: E.H: Eremuko helburuak / O.G:Oinarrizko kompetentziak / H.O: Etapako Helburu Orokorrak/ (Blokeak)

Esperientzi Eremua: NORBERAREN EZAGUERA ETA AUTONOMI PERTSONALA

E.H	EDUKIAK	O.G	H.O
1.	-Norberaren gorputzaren ezaugarriak eta besteekiko aldeak identifikatzea. Eta (1) errespetatzea. (1) -Norberaren gorputzaren gaitasunean eta aukeraketan konfiantza izatea eta mugak onartzen joatea. (1)	A, E, H	a c, d
2.	-Norberaren gorputzari lotuta espazio erreferentziak ezartzea. (1) -Oinarrizko mugimendu trebetasunak apurka kontrolatzen ikastea (1)	A H	a c
3.	-Norberaren gorputzaren ezagutza, errepresentazioa eta onarpena. (1) -Ekintzarako eta adierazpenerako norberaren gaitasunaz eta mugaz pixkanaka ohartzea. (1)	A	a
4.	-Norberaren eta inguruko sentimenduak , emozioak bizipenak, beharrak eta interesak identifikatu eta adieraztea. (1) -Norberaren sentimenduak eta emozioak pixkanaka kontrolatzen ikastea eta besteenak errespetatzea. (1)	A H	a,d e
5.	-Ongizatea, segurtasuna, gozamena, higiena, elikadura,atsedenarekin...zerikusia duten ohiturak eta jarrerak ezagutzea, onartzea eta pixkanaka bereganatzea. (4)	A F,H	a c
6.	-Eguneroko arazo txikiak konpontzeko baliogarriak diren estrategien aukeraketan gero eta autonomoagoa izatea. (3) -Egunerokotasuna arautzen duten arauak ulertzea eta onartzea. (2)	A E,F	a c ,e
7.	-Afektu eta jolas, mugimendu eta segurtasunezko beharrak betetzeko estrategiak gero eta modu autonomoagoan erabiltzea. (2) -Izandako autonomia eta lorpenekin poztasuna adieraztea (2)	A E	a c

8.	-Ekintzatan besteen mugak eta desberdintasunak onartzea eta laguntza ematea behar dutenean. (2)	A	a
	-Beste hezkuntza behar batzuk dituzten ikaskideak errespetatzea eta haiei laguntza ematea. (3)	H	e
9.	-Norberaren ekintzaren plangintza egitea arazo txikiei aurre egiteko. (3)	A	a
	-Gauzak ondo ateratzen ez direnean frustrazio txikiak gainditzea. (2)	E	e
	-Laguntza behar duten egoeretan laguntza eskatzea eta onartzea. Besteen laguntzeko jarrerari garrantzia ematea. (4)	H	

II EREMUA: INGURUNEAREN EZAGUERA

E.H	EDUKIAK	O.G	H.O
1.	-Ingurune natural, físico eta social desberdinak behatzea eta esploratzea. (1, 2, 3)	A	b
	-ingurune desberdinak ezagutzeko jakin mina adieraztea. (1, 2, 3)	E	c
	-Ingurune batzuen partaide sentitzea. (2, 3)	F	
	-Ingurune batzuei autonomiaz eta segurtasunez moldatzea. (1, 2, 3)	H	
2.	-Eguneroko bizitzan oinarritzko arau sozialak ezagutzea, onartzea eta ulertzea. (3)	A	b
